

JARDUERAK

Gure enpresa ibilgailuak denbora jakin baterako alokatzeko enpresa bat da, eta gure lanaren zatirik handiena webgune baten bidez egiten dugunez, sareko jarduera da gure funtsezko jarduera. Web orriaren bidez jasotzen ditugu bezeroen erreserbak, beraiek zalantzak izatekotan webgunearen bidez gurekin jarri daitezke kontaktuan...

Lehenik eta behin, gure ibilgailuak kanperizatuko ditugu, erosi ditugun moduan ezin direlako lo egiteko eta bertan bizitzeko erabili, ez baitaude ondo prestatuak.

Gainera, gure web-orriaren gestioa eramango dugu, non bertan etengabeko eguneraketak egingo ditugun. Esate baterako, zein ibilgailu zer datetan libre daukagun jarriko eguneratuko dugu, gure promozioak bertan argitaratuko ditugu, eskaintzen ditugun pakete desberdinen ezaugarrien berri emango dugu...

Sare sozialak ditugunez, bertan egunero berri guztiak igoko ditugu eta horien bidez bezeroak gurekin harremanetan jarri ahal direnez, edozein zalantza argitzeko prest egongo gara. Sare sozialak ere zozketak egiteko erabiliko ditugu (behin bezeroen fideltasuna jasotzean hasiko gara egiten).

Gure enpresak duen beste jarduera da bezeroek furgoneta edo autokarabanaren bila etortzean haiei baldintza, arauak eta aukeratu duten paketea azalduko dizkiegu. Hori alokatuta daukagun lokalean egingo dugu, non bulego txiki bat daukagun. Bertan lan egingo dugu lanaldi erdian eta lokalean beti izango da norbait bezeroetaz arduratzeko.

Azkenik dugun betebeharra promozioa egitea da. Aurretik aipatu dugun bezala, sare sozialen bidez publizitatea egitea oso erraza da, orduan Instagram eta Facebook erabiliko ditugu bertatik gure enpresa ezagutarazteko. Oso garrantzitsua da ere internet ez daukaten pertsonak gure enpresa ezagutzea; orduan irrati bidez edo kalean eskuorri batzuk banatuz publizitatea egingo dugu, ahalik eta jende gehienarengana ailegatzeko.

Gure esku ez ditugu utziko hainbat jarduera. Horiek ibilgailuen garbiketa, lokalaren segurtasuna, lokalaren garbiketa eta ibilgailuen mantentze lanak izango lirateke. Lehenengo jarduera.

- Lokalaren garbiketa La Porxada enpresak egingo du.
- Lokalaren segurtasuna Securitas Direct-en esku utziko dugu.
- Ibilgailuen garbiketa Limpirezol enpresak egingo du.
- Ibilgailuen mantentze-lanak Garaje Eguietxak egingo du.